

Boxeo herriko taldeek komunitatean duten rola eta parte hartzaileengan duten eraginaren azterketa:

Pisako Palestra Popolare La Fontinako eta Bilboko Sanifight boxeo taldeen kasuak

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

Gradu Amaierako Lana

2020/2021 ikasturtea

Egilea: Irati Bustamante Etxezarreta

Zuzendaria: Aintzane Cabo Bilbao

Leioan, 2021eko maiatzaren 31an

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. MARKO TEORIKOA	6
2.1. KOMUNITATEA	6
Gizarte Mugimenduak:	7
Parte Hartzea:	8
Identitate Kolektiboa:	8
2.2. BOXEO HERRIKOIA	9
Boxeo herrikoiairen onurak:	11
2.3. BOXEO HERRIKOIA ETA GIZARTE HEZKUNTZA	12
Tendel Elkartea:	12
Rukeli Gimnasio Herrikoia:	13
Palestra Popolare Quarticciolo:	13
Hortaleza Boxing Crew:	14
Woodlawn Boys Club:	15
2.4. AZTERTU DITUDAN TESTUINGURUAK	16
Sanifight boxeo taldea:	16
Palestra Popolare La Fontinako boxeo taldea:	17
3. METODOLOGIA	17
3.1. HELBURUAK	17
3.2. LAGINA	18
3.3. TRESNAK	18
Elkarrizketaren eraikuntza:	19
Marko teorikoan agertzen diren testuinguruak osatzeko elkarrizketak:	21
Berrikusketa bibliografikoa:	21
4. LANAREN GARAPENA	22
4.1. EGOERA HAUTATZEA, TALDEAK ETA EZAUGARRIAK	22
4.2. BILDUTAKO DATUAK AZTERTZEA	23
5. EMAITZAK	24
1. Komunitatearen beharra:	24
2. Komunitateko parte aktibo:	24
3. Talde kohesioa, kolektibitatea eta harremanak:	25
4. Inklusioa komunitatean:	25
5. Onura psikologiko eta fisikoak:	26
6. Pertsonen autonomia:	26
7. Pertsonen aktibazioa eta parte hartzea:	26

8. Pertenezia sentimendua:	27
9. Gimnasioekin konparaketa:	27
10. Balioak:	27
6. ONDORIOAK.....	28
7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	31

Laburpena

Gizarte Hezkuntza Graduko ikerketa honen helburuak boxeo herrikoi taldeek komunitatean duten rola zein den aztertzea eta bertan parte hartzen duten pertsonengan duten eragina ikertzea da. Azterketa, Pisako (Italia) *Palestra Popolare La Fontinako* boxeo herrikoi taldean eta Bilboko San Inazio auzoko *Sanifight* taldean burutu da. Helburu horiek lortzeko metodologia kualitatiboa erabili da eta elkarrizketak, ikerketa tresna gisa. Elkarrizketa hauen bidez, boxeo herrikoi talde hauek komunitateko elementu inklusiboak direla agerian geratu da, parte hartzaileak aktibatuz, hauen autonomia pertsonala garatuz eta pertenezia sentimentua sortuz. Horregatik, boxeo herrikoi talde hauek bai komunitatearen aktibaziorako eta baita norbanakoentzat ere, onuragarriak direla ondorioztatu da.

Hitz gakoak: Boxeo herrikoaia, inklusioa, komunitatea, Gizarte Hezkuntza, parte hartzea

Resumen

Esta investigación del Grado de Educación Social estudia la actividad de los grupos de boxeo popular *Palestra Popolare La Fontina*, de Pisa (Italia), y *Sanifight*, del barrio San Inazio de Bilbao, y tiene como objetivo analizar el rol que cumplen en la comunidad estos grupos de boxeo popular y los efectos que tienen sobre sus participantes. Para ello se ha utilizado la metodología cualitativa, a través de entrevistas para recabar los datos necesarios. Mediante estas entrevistas se ha visto que los grupos de boxeo popular son un elemento inclusivo en la comunidad, ya que activan a los participantes, desarrollan la autonomía personal y crean un sentimiento de pertenencia. Por lo cual, se ha llegado a la conclusión de que estos grupos de boxeo popular son beneficiosos tanto para la activación de la comunidad como para los individuos que participan en estos grupos.

Palabras clave: Boxeo popular, inclusión, comunidad, educación social, participación

Abstract

Analyzing the role that the groups of popular boxing have in the community and the effects that these groups have on people participating in these groups has been the aim of this investigation of the Grade of Social Education. This investigation was done regarding the popular boxing groups of *Palestra Popolare La Fontina* of Pisa (Italy) and *Sanifight* of San Inazio, Bilbao. A qualitative methodology has been used to achieve that goal, using the interview to collect the necessary data. These interviews have shown that these groups of popular boxing are an inclusive element in the community, activating participants, developing personal autonomy and creating a feeling of belonging. Therefore, the conclusion that has been reached is that these groups of popular boxing are beneficial for the activation of the community and for the people who participate in these groups.

Key words: popular boxing, inclusion, community, social education, participation

1. SARRERA

Hainbat dira kirolaren onurak aztertzen dituzten ikerketak, eta Gradu Amaierako Lan (GrAL) hau ere kirolaren inguruan da, baina konkretuki boxeoan zentratuko naiz. Hala ere, GrAL hau ez da gimnasio publiko edo pribatuetan egiten den boxeoari buruz, boxeo herrikoari buruz baizik, hau da, normalean espazio okupatuetan eta modu autogestionatuan antolatuta egiten den boxeo. Horregatik, boxeo kirolean zentratzeaz gain, garrantzi handia emango zaio boxeo talde herrikoiei talde gisa, hau da, Gizarte Hezkuntzaren begiradatik mugimendu sozialetatik sortutako talde hauek komunitateko eragile direla ulertuta.

Boxeo herriko taldeak Euskal Herrian nahiko berriak dira, azken hamarkadan sortuak baitira, eta Gasteizko *Errekaleor* auzo okupatuan edo Bilboko *Karmela* gaztetxean bezalako espazioetan aurkitu daitezke. Hala ere, Europako beste herrialde batzuetan duela hainbat hamarkadatik existitzen dira horrelako taldeak, eta arrazoi horregatik, Euskal Herrian berria den fenomeno delako hau, hain zuzen, eta Gizarte Hezkuntzarekin duen lotura estuagatik, kirola denontzat eskubide bat izan beharko litzatekeela defendatzen duten boxeo herriko taldeen inguruko GrAL-a egitea erabaki dut.

Lan honek bi helburu nagusi ditu, lehenengoa boxeo herriko taldeek komunitatean duten rola aztertzea da eta bigarrena talde hauek bertan parte hartzen duten pertsonengan sortzen dituzten onurak ikertzea. Helburu hauek lortzeko, ikerketa kualitatibo hau bi boxeo herriko taldetan zentratuko da, alde batetik kontuan izanda boxeo mota hau Italian sortu zela (Camoletto *et al.*, 2015) Italiako talde bat ikertzea interesgarria iruditu zait, konkretuki Pisako *Palestra Popolare La Fontinako* boxeo taldea. Beste alde batetik, oraindik Euskal Herrian hain hedatuta ez dagoen fenomeno hau aztertzea garrantzitsua ikusten dut, eta horregatik Bilboko San Inazio auzoko *Sanifight* boxeo taldea aukeratu dut.

Ondorioz, hurrengo lerroetan metodologia kualitatiboaren bidez egindako boxeo herrikoia eta hau praktikatzen duten taldeen inguruko ikerketari ematen diot lekua, Bilboko San Inazio auzoan eta Italiako Pisa hirian kokatua.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. KOMUNITATEA

Komunitate hitza entzutean denok dakigu zer esan nahi dugun hitz horrekin, baina kontzeptu sinplea dirudien arren, askotan ez dago hain argi zeri buruz ari garen hitz hau erabiltzerakoan. Causse-ren (2009) arabera, autoreek bi elementuri egiten diete erreferentzia komunitate kontzeptua definitzerako orduan, alde batetik, egiturazko elementuei, eta beste alde batetik, elementu funtzionalei. Lehenengoek, komunitatea leku geografiko jakin batean kokatzen dute, eta elementu funtzionalek ordea, taldeak dituen behar eta interes komunei egiten diete erreferentzia. Ariasek Violichen definizioa azaltzen du:

Leku geografiko espezifiko batean bizi den pertsona taldea, taldekideek ekintza eta interes komunak partekatzen dituzte, eta hauek arazo kolektiboak konpontzeko kooperatu edo ez kooperatu ahal dute, formalki edo informalki (Arias, 2003, in Causse, 2009, orr. 3).

Beste alde batetik, Socarrásek (2004, in Causse, 2009) komunitatea eremu geografiko batean dagoen taldea baino gehiago dela defendatzen du, hau da, nortasun eta pertenezia zentzu bat duen giza taldea dela dio, historia, errealitate, interes, ohitura, arau, sinbolo eta kode komunak dituen giza taldea, hain zuzen. Causse-ren (2009) esanetan, pertenezia sentimendu honek komunitateko biztanleei mobilizatzeko, kohesionatzeko eta kooperatzeko gaitasuna ematen die, eta ezinbestekoa da komunitatearen garapenerako, bizikidetzak baketsu eta iraunkor bat izateko eta pertsonak modu kolektiboan antolatzeko beharrezkoa baita. Horregatik, pertenezia sentimenduak komunitatea baldintzatzen du. Horretaz gain, parte hartzea ere faktore garrantzitsua da komunitate baten izatean, parte hartzea fenomeno politiko, sozial eta kulturei lotutako kontzeptu sozial gisa ulertuta, botere harremanen inguruko prozesu eraldatzailea delarik (Socarrás, 2004, in Causse, 2009).

Horretaz gain, batzuetan komunitate kontzeptua gizarte kontzeptuarekin nahasteko arriskua egoten da, baina ez da berdina. Feijóok (2000, in Eito eta Gómez, 2013) Tönnies, Durkheim, Spencer eta Simmel autoreak irakurri ondoren, komunitatea eta gizartea desberdindu egiten ditu, eta komunitatea harreman interpersonalen lekua dela defendatzen du, hurbiltasunaren eta afektuaren lekua, eta gizartea berriz, harreman formalen, arrazionaltasunaren eta modernitatearen gunea. Aldi berean, Baumanek (2003, in Eito eta Gómez, 2013) komunitatea gauza on gisa definitzen du, eta gizartearekin konparatuta, komunitatea gero eta babesgabeagoa den gizarte batean lekurik seguruena dela argudiatzen du.

Autoreen definizioak kontuan izanda, komunitatea leku geografiko jakin batean kokatzen den giza taldea dela esan daiteke, kultura, jarrera, ohitura, historia, errealitate eta interes komunak dituztelarik. Komunitateak beharrezkoa du bertan parte hartzen duten pertsonen nortasun edo pertenezia sentimendua izatea, eta baita komunitatean parte hartzea, sareak sortuz.

Gizarte Mugimenduak:

Komunitatea zer den definitu ondoren, gai hau lantzen jarraitzeko gizarte mugimenduak zer diren argitu behar da. Gizarte mugimendu kontzeptua ere, kontzeptu zabala da, asko entzuten dena, baina definizio edo esanahi konkretua zein den jakitea beharrezkoa da. Ibarren (2000) arabera, gizarte mugimendu bat ekintza kolektibo bat da, eta ekintza kolektibo bat sortzeko aurretik gatazka edo arazo baten existentzia dago, ekintza kolektibo hau konfliktua konpontzen saiatzen baita. Hala ere, honek ez du esan nahi konfliktu denen ondorioz gizarte mugimenduak sortzen direnik. Gizarte mugimenduak hurrengo arrazoiengatik sortzen dira:

Alde batetik, arazo estrukturalak existitzen direlako, eta hauek interes konkretu batzuen urraketa sortzen dute, beraz, gizarte mugimenduak gabezia estrukturalen ondorio dira. Beste alde batetik, arazo edo gatazka hau lehenago egon diren beste forma batzuek (erakundeek) konpondu ez dutelako sortzen dira gizarte mugimenduak, aurretiazko forma horiek ezin dutelako arazoa konpondu edo ez dutelako konpondu nahi izan. Ondorioz, organizazio gabezien ondorioz ere sortzen dira gizarte mugimenduak. Azkenik, gizarte mugimenduak jende talde bati nola bizi diren gustatzen ez zaiolako sortzen dira, pertsona hauek nahiago baitute beste errealitate batean bizitzea eta horretarako gatazkari aurre egitea, beraien interes kolektiboak defendatuz. Arazoa berdintasunez eta modu kooperatibo eta parte hartzaile batean konpondu behar dela uste dute, eta horregatik, modu solidario eta parte hartzaile batean antolatuko dira, eta beraien ekintza kolektiboan sortu nahi duten mundua finkatzen dute. Horregatik, mugimendu sozialak gabezia ideologiko batzuen ondorioz ere sortzen dira (Ibarra, 2000).

Horren ondorioz, Ibarren (2000) esanetan, gizarte mugimendu batek identitate kolektibo bat bilatzen du, hau da, gizarte mugimendu baten existentziak pertsona talde batek mundua ikusteko, egoteko eta ekintzak egiteko modu kolektibo eta berdina izan nahi dutela suposatzen du. Mugimendu sozial bat ez da arazo indibidualak konpontzeko mugimendua, errealitatea bizitzeko eta interpretatzeko forma komun bat egon behar da, arazo kolektiboak

konpontzeko. Gainera, mugimendu sozial bat lehenagotik sare solidarioak, esperientzia duten pertsona solidarioak edo hau posible egiten duen ideologia duten pertsonak existitzen direlako sortzen da.

Parte Hartzea:

Komunitatea definitzerako orduan, argi geratu da parte hartzea beharrezkoa dela komunitate baten funtzionamendu egokirako, eta horregatik, parte hartzea zer den jakitea beharrezkoa da. Ucharen (2010) esanetan, parte hartzea zerbait partekatzea, ezagutzak konpartitzea edo ekintza politiko eta zibiletan sartzea da. Horretaz gain, biztanleriak bere lurralde edo herrialdeko politikan erabakiak hartzeko duen gaitasunari ere esaten zaio parte hartzea.

Definizio hau kontuan izanda, parte hartzea plano txikiago batean ere zentratu dezakegu, hau da, auzo edo herrietan, eta horretarako, parte hartze komunitarioa zer den definitu behar da. Aguilarren (2013) aburuz, parte hartze komunitarioa prozesu sozial bat da, non behar, interes, arazo edo komunitate berdinekoak diren biztanleriaren talde espezifiko batek behar, arazo edo interes horiek identifikatzeko prozesu aktibo bat egiten duen, erabakiak hartuz eta aldaketarako mekanismoak sortuz.

Ondorioz, parte hartze komunitarioa komunitate jakin batean dauden arazo edo beharrei erantzuna emateko, komunitate horretako biztanleek ekintza edo inizatiba komunak pentsatu eta aurrera eramatea dela esan daiteke.

Identitate Kolektiboa:

Gai hau lantzeko eta komunitate kontzeptua ulertzeko garrantzitsua den beste kontzeptu bat identitate kolektiboa da. Cabreraren (2004) esanetan, identitate kolektiboa gizarte batek partekatzen dituen sinesmenek sortzen dute, sinesmen horiek gizartea *gu* bat bezala identifikatzen dutelarik, hau da, talde bat bezala. Horretaz gain, kontzeptu honek mugimendu sozialekin lotura estua du, izan ere, Chihu eta Lópezen (2007) arabera, Melucci filosofoak definitzen duen identitate kolektiboak gizarte mugimenduak nola sortzen diren erantzuten du, identitate kolektiboa baita norbanakoak ekintza sozialean sartzearren arrazoia, izan ere, gaur egungo gizarte mugimenduek boterea edo baliabide materialak bilatu beharrean, autonomia, identitatea eta errekonozimendua bilatzen dituzte. Cohenen (1985, in Chihu eta López, 2007) esanetan ere, gaur egungo gizarte mugimenduek garrantzi handia dute identitateen sorrera eta eraikuntzan.

Definizio hauek kontuan izanda, identitate kolektiboa komunitate edo gizarte batek ezaugarri komun batzuk partekatzen dituztenean ematen da, ezaugarri horien ondorioz talde gisa identifikatzen direlarik. Aldi berean, identitate komunitarioa gizarte mugimenduak sortzeko arrazoi bat izan daiteke, norbanako eta taldeek identitate hori errekonozitzeko eta aldarrikatzekeo gizarte mugimenduetan parte hartzen baitute.

2.2. BOXEO HERRIKOIA

Pedriniren (2018) arabera, boxeo herrikoia terminoak Italian du jatorria, *boxe popolare* (herriaren boxeoa) kontzeptuan, hain zuzen. Boxeo herrikoia kultura politiko hau Italian sortu zen lehenengo aldiz 1960ko hamarkadan, gazte ezkertiarren artean. Hauen helburuetako bat alderdi politikoetatik at zeuden mugimendu autogestionatuak sortzea zen, eta mugimendu honen haritik sortu ziren gimnasio herrikoia (*palestra popolare*). Boxeo herrikoia beraz, gimnasio herrikoien mugimendutik sortu zen, eta ezin da hau ulertu gimnasio herrikoia zer diren jakin gabe.

Camoletto *et al.*-en (2015) esanetan, gimnasio herrikoia mugimendu antifaxista, autogestionatu eta okupazio mugimenduetatik sortu ziren Italian, eta gaur egun ere, Membrettiren (2007, in Camoletto *et al.*, 2015) aburuz, ezker extraparlamentarioko mugimenduetan sortzen dira normalean. Hauek kirolaren inguruan dugun kontzeptuari buruz hausnarketa egiten dute, kirol herrikoia irabazi asmoko kirola ez dela aldarrikatuz, ez baitu irabazi ekonomikorik bilatzen, ezta lehiarik ere ez. Gizarte kapitalistan gertatzen denaren kontra, gimnasio herrikoietan kirola sozializatorako, taldea sortzeko eta garapen kolektiborako tresna dela defendatzen da. Gimnasio herrikoientzako, kirola denentzako eskubide bat izan behar da eta denek izan behar dute hori bizitzeko eskubidea, bai lan egiten duenak, bai langabezian dagoenak, bai gainerako gimnasioetan ordaindu behar dena ordaindu ezin duenak eta baita gimnasio hegemonikoek gorputzarekiko duten kontzeptuarekin eroso sentitzen ez denak ere.

Horri lotuta, gimnasio herrikoietan kirolaren eta gorputzaren kontzeptuarekiko hausnarketa ere egiten da. Gorputza zaintzea beti ikusi izan da aberatsen gauza bat izango balitz bezala, klase sozial baxuenek ez dutelako baliabide ekonomikorik ezta denborarik ere gorputza kirola eginez zaintzeko. Horregatik, askotan, gizarte mugimendu ezkertiarretatik gorputza zaintzea aberatsen zerbait dela pentsatzen da, modu despektiboan, eta gimnasio herrikoiek ideia hori kendu nahi dute, gorputza ez dela edertasun kanon batean sartzeko zaindu behar argudiatuz, gure buruarengan kontrol gehiago izateko baizik (Camoletto *et al.*,

2015). Gainera, gizarte kapitalistan gorputza zaintzea (gimnasioetan, kirolaren bidez) beste kontsumo mota bat dela argudiatzen dute Camoletto *et al.*-ek (2015), norbanakoaren posizio soziala igotzeko asmoz, izan ere, forma fisiko onean baldin bazaude zure kapital ekonomikoa handiagoa dela pentsatzen da, eta ondorioz kirola kontsumitzen dugun produktu bihurtzen da. Gimnasio herrikoietan ordea, ordaindu behar ez denez, ez dute kirola komertzializatu daiteken produktu bihurtzen.

Gimnasio herrikoien antolakuntzari dagokionez, estruktura ez instituzionalizatu baten bidez funtzionatzen dute, non ez dagoen hierarkiarik eta biltzarren bidez antolatzen diren, kanpo eta barne ordezkariak dinamikekin (Camoletto *et al.*, 2015). Hala ere, bertan parte hartzeko ez da derrigorrezkoa ideologia jakin bat partekatzea, ideia politiko zehatz bat ez duten pertsonak ere parte hartzen dute, hauen helburua kirola denentzat eskuragarria izatea baita. Gimnasio herrikoiak beraz, Camoletto *et al.*-en (2015) esanetan, espazioen eta gorputzaren birjabetzea aldarrikatzen duten proiektu alternatibo bat dira, pentsamendu kapitalistari aurre egiten diotenak.

Boxeoari dagokionez, Camoletto *et al.*-ek (2015) diotenez, gimnasio herrikoien zentroa da hau, boxeoren bidez sortzen dute gimnasio hauek beraien identitatea, eta ia ezinezkoa da boxeorik egiten ez den gimnasio herrikoia bat aurkitzea. Ligabueren (2016) esanetan, boxeo ez da kirol bat, bi kirol desberdin dira boxeo, guztiz desberdinak diren bi kirol, izan ere, alde batetik boxeo profesionala dago, eta beste alde batetik afizionatuek dibertitzeko egiten duten boxeo, boxeo herrikoia azken honetan sartuko litzatekeelarik. Teorian, boxeo profesionalak helburu gisa formakuntza, hazkunde morala eta esperientzia tekniko zein taktikoa izan beharko lituzke, baina errealitatean boxeo profesionalak kasu gehienetan helburu suntsitzailea baino ez du, formakuntza guztiz alde batera utziz. Ligabueren (2016) aburuz, Felix Savon boxeolari kubatarrak boxeo profesionala txarra dela defendatzen du, dirua lortzeko sortua baita, eta ez baitu atletaren osasuna kontuan izaten. Formakuntza eta hazkunde morala helburu dituen boxeo afizionatuek egiten duten boxeo dela argudiatzen du Ligabuek (2016), beraz, baita boxeo herrikoia ere.

Ondorioztatuz, boxeo herrikoia gimnasio herrikoien baitan praktikatzen den boxeo dela esan daiteke, non ikuspuntu antikapitalista batetik eta autogestioa zein okupazioa oinarri gisa izanik, kirola herritar denei eskaintzen zaien dohainik, kirola eskubide bezala ulertzen baita, ez salgai gisa. Horregatik, boxeo herrikoian, boxeo ez da lehiarako tresna gisa

ulertzen, sozializaziorako, aisialdirako eta garapen pertsonal zein kolektiboa lortzeko bitarteko gisa baizik.

Boxeo herrikoiairen onurak:

Boxeo herrikoiairen onurei dagokienez, hau gimnasio herrikoien barnean kokatu behar da, eta beraz, espazio hauetan transmititzen diren baloreak eta alde positiboak ere boxeo herrikoian transmititzen direla kontuan izan behar da. Hurrengoak dira boxeo herrikoiairen onurak:

1. Benvegaren (2020) esanetan, espazio hauetan (gimnasio herrikoietan) egiten den edozein kirol herrikoik soziazialitateari balioa ematen dio. Hau da, harremani, jendearekin kontaktuan egoteari, eta horregatik, esan daiteke jendea ezagutzeko eta harreman sareak lantzeko espazioa ere badela.
2. Boxeoak berak kolektibitatea sortzen laguntzen du, izan ere, Wacquant-ek (2006) dioenez, boxeo kirol indibiduala da alde batetik, bakarrik baitzaude ringean, baina aldi berean, guztiz kolektiboa den kirola da, kirol hau ikasteko modu bakarra kolektibitatea baita.
3. Parte hartze handia egoten da gimnasio herrikoietan, Benvegak (2020) dioenez, parte hartze honek taldea eta identitate bat sortzen dituelarik.
4. Gimnasio herrikoiak eta ondorioz boxeo herrikoia gizarte kapitalistaren kontsumo ereduarekiko aukera dira:

Solidaritate espirituak, testuinguru honetan militantzia antzeko batekin transmititua, kapital ekonomiko eta finantzieroak mugatutako kirolaren irabazi kategorien absolutizazioa, kontsumismoa eta alienazio sentimentala ordezkatu ditzake. Analitikoki, kirol herrikoia (orokorrean) Max Weberrek (2016) proposatutako komunitatearen idealekiko atzera pausoa bultzatzen duen gizarte modelo baten kontrapisua da, bere aktoreen jatorri lokala, hierarkiarik eza eta osaketa aldakorra aldarrikatuz (Benvega, 2020, orr. 91).

Aldi berean, herritarrek herritarrentzako sortutako proiektuak dira hauek, aisialdiaren eta kirolaren arloan burujabe bihurtuz:

A la vez que boxear permite el desfogue y adquirir disciplina y fortalecimiento individuales, un espacio como el *Rukeli* favorece también la creación y el cuidado colectivo, la reapropiación y autogestión del ocio cotidiano y la vinculación con un espacio que depende, en gran medida, de nuestras propias ideas, nuestra propia actividad, nuestra propia organización y nuestro propio control. Es decir: todo aquello que nos falta y a lo que no estamos acostumbrados, pero que nos reconforta (García, 2019).

5. Boxeo herrikoiak maila sozioekonomiko baxuko pertsonen kirola dohainik egiteko aukera ematen die (E. *Rukeli*)*.
6. Gimnasio herrikoietan edozein motatako diskriminazio etniko, sexual eta erlijiosoak kondenatzen dute, Benvengaren (2020) esanetan, eta hauen printzipio ideologikoen komunitatea dute oinarritzat.
7. Rubioren esanetan (2012) boxeoak indarkeria kanalizatu egiten du, arau batzuk ezarriz, kiroltasuna eta errespetua handiak direlarik kirol honetan. Gutierrezek (d.g.) *Hortaleza Boxing Crew* taldeari egindako elkarrizketan ere proiektu honetan parte hartzen duten entrenatzaileek boxeoak agresibitatea kontrolatzen eta emozioak gestionatzen laguntzen duela argudiatzen dute, boxeolari on bat izateko lasai egoten ikasi behar delarik.
8. Osasunari dagokionez, boxeo oso osoa den kirol bat da, ariketa aerobikoekin eta indarra lantzeko ariketekin (E. *Rukeli*). Horretaz gain, Rubioren (2012) esanetan, nahiz eta kirol biolentoa ematen duen futbola bezalako kirolean baino askoz lesio gutxiago egoten dira. Gainera, psikologikoki antsietatearen eta estresaren kontra egiteko lagungarria da, diziplina lantzeko erabilgarria delarik, norbanakoaren buruarengan konfiantza lantzen du eta arazoei modu independentean aurre egiteko erremintak ematen ditu (E. *Rukeli*).

2.3. BOXEO HERRIKOIA ETA GIZARTE HEZKUNTZA

Boxeo herrikoiak Gizarte Hezkuntzarekin duen lotura estua da, izan ere, biztanle denentzat zuzenduta dagoen kirola eskaintzen du, dohainik, komunitatearentzat aisialdirako zerbitzu bat eskainiz eta berdintasuna eta errespetua bezalako balioak transmitituz. Gizarte Hezkuntzarekin lotura baieztatzen dute hurrengo kasuek:

Tendel Elkarteak:

Tendel Bilboko Otxarkoaga auzoan lan egiten duen elkarteak da, duela 20 urte sortua, eta gaur egun gai sozial eta komunitarioak lantzen dituzte, nerabe eta haurretan zentratuz batez ere, auzoaren beharrei erantzunez. Elkarte honetan egiten den ekintzetako bat da boxeoak, gimnasio bat baitute, eta hau gazteengana hurbiltzeko mekanismo gisa erabiltzen dute, eskaintzen dituzten kiroleetatik boxeoak arrakasta gehien duen kirola delarik. Boxeoaren bidez konpromiso bat hartzen dute gazteek, eta ekintza hezitzailea ez da gimnasia mugatzen, izan ere, elkarteko entrenatzaile eta batez ere hezitzaileek, harremana dute gazteen

**Rukeli* gimnasio herrikoiko parte hartzaile bati egindako elkarrizketatik ateratako informazioa.

eskola eta familiarekin, eta beraz, eskolan duten jarrerak ondorioak izaten ditu boxeoko klaseetan ere. Gainera, boxeoan transmititzen diren balioek errespetua irakasten dute, kontrako pertsona errespetatu behar da, baita espazioa ere. Beraz, askotan gazte asko kalean borrokatzeko intentzioarekin sartzen dira, baina gero errespetua ikasten dute, eta errespetuaz gain, auzoak duen fama txarrari aurre egiten diote, gazteak kontzientziatuz eta hauen autokontzeptua landuz (E. *Tendel*)*:

...intentamos transmitir un sentido de pertenencia. Somos de Otxar, y ser de Otxar es un orgullo, pertenecer a este barrio tiene cosas muy positivas y transmitirles que hay que ser orgullosos de ser de Otxarkoaga, le tenemos que decir no a la mala fama que hemos tenido en toda la vida...Todos podemos llegar, sus metas y limites los ponen ellos, no se pueden poner límites por ser de Otxar (E. *Tendel*).

Rukeli Gimnasio Herrikoa:

Rukeli Sabadellen, Kataluinian, kokatzen den gimnasio herrikoa da. Hau duela 5 urte sortu zen, *La Obrera* gaztetxeko hainbat kideren eskutik, sozializatorako eta balioen eraikuntzarako gimnasio bat sortzeko intentzioarekin okupatu zuten parking batean. *Rukelik* komunitatean duen funtzio nagusia dohainik diren aisialdirako aukerak eskaintzea da, non edozein aurreiritziren kontrako balio demokratikoak lantzen diren. Transmititzen diren balioen artean antisexismoa, antiarrazakeria eta homofobiari kontra egitea eta kirolaren desmerkantilizazioa daude. Azken honekin, lan komunitarioa lantzen dute, izan ere, ez da ordaindu behar gimnasioan parte hartzeko, baina espazioa zaindu behar da, hau da, garbitu, mantendu... Espazioa parte hartzen duten pertsona denena da, eta balio hauen bidez komunitatean lan egiten eta zaintza lanak egiten ikasten eta irakasten da (E. *Rukeli*).

Boxeoa paper garrantzitsua du *Rukelin*, praktikatzeko hasi ziren lehenengo kirola baita, eta gaur egun 10-15 pertsonako 20 boxeoko talde baino gehiago daude, eta boxeoa bidez, auzoko biztanleekin sareak lantzen dituzte. Gainera, auzoko beste eragileekin kontaktuan egoten dira, adingabekoen zentroekin kontaktuan daude, eta nerabe hauek *Rukelin* praktikatzeko boxeoa, aisialdirako paper garrantzitsua betetzen duelarik. Horretaz gain, *Plataforma de Afectadas por la Hipotecarekin* eta hainbat ONGrekin harreman zuzena dute, bertako kide askok boxeoa *Rukelin* egiten dutelarik (E. *Rukeli*).

Palestra Popolare Quarticciolo:

Boxeo herrikoia Gizarte Hezkuntzarekin duen lotura baieztatzen duen beste adibide bat da Erromako *Quarticciolo* auzoko izen bereko gimnasio herrikoa. Argentiren (2020) esanetan, bertan boxeoa eta *parkour* klaseak ematen dituzte 2015etik, 20 urte baino gehiago

**Tendel Elkarteko* langile bati egindako elkarrizketatik ateratako informazioa.

abandonatuta zeramatzan lokalean sartu zirenetik, hain zuzen. Boxeoari dagokionez, Emanuele Agatik, gimnasioaren kideak, hiru talde dituztela argitaratu du, Sinaren (2020) esanetan, 5-9 urteko umeen taldea, 9-13 urtekoen taldea eta 13 urtetik gorako nerabe zein helduentzako taldea, hain zuzen. Entrenamenduek arrakasta handia dute eta entrenatzera ez doan jendea ere gimnasiotik askotan pasatzen dela dio, auzoan dagoen aisialdirako espazio bakarra baita.

Gainera, bertan entrenatu izan duten bi mutil boxeolariak bihurtu dira maila profesionalean. Bi mutil hauek zailtasunak zituzten ikasketetan, baina boxeoan beraien balioa ikusi dute, ikasketetan ez bezala taldeak babesa eman zielarik. Sinaren (2020) esanetan, Emanuele Agatik mutil hauek beti denean azkenak sentitzen zirela esan du, baina gimnasio honetan balioztatuak sentitu izan dira lehenengo aldiz, profesionalak bihurtu arte.

2020an, azkenean, eskualdeko gobernuak talde honek espazio honetan egindako lana aitortu eta onartu du. Aitorpen horren aurrean, hurrengo adierazpena egin dio Emanuele Agatik La Repubblica egunkariari:

"Lehen pausu garrantzitsua izan da, pozik gaude. Ostuni kalean zegoen espazioa gure auzoan biltzeko lekurik ez zegoenez horri erantzun bat emateko okupatu genuen. Gaur egun azaltzen dute Red Lab Quarticcioloko aktibistek- pozik gaude erakundeak guk eraikitakoaren balioa aitortzen hasi direlako" (Argenti, 2020).

Hortaleza Boxing Crew:

Boxeo talde hau Madrilgo La Hortaleza auzoan kokatzen da, eta *Asociación Vecinal la Unión de Hortaleza* elkarteak antolatzen dituen ekintzetako bat da, Hortaleza Boxing Crew-ren (d.g.) arabera. Elkarteak auzoko beharrak ikusiz boxeoaren bidez gazteentzako espazio bat eraikitzea beharrezkoa zela ikusi zuen, gazteak modu pertsonal eta sozialean garatzeko. Beraz, boxeoa gazteak ezagutzeko eta sareak sortzeko aitzakia baino ez da, auzoko problematikei aurre egin eta gazteen behar sozialak asetu eta gatazken mediazioa egiteko. Li Bren (2016) arabera, gimnasioan parte hartzen duten gazte gehienek familiek arazo ekonomiko larriak dituzte elikagaiak erosteko edo liburu akademikoak erosteko, eta espazio honek auzoan azken hamarkadetan eman den pribatizazio prozesuei aurre eginez boxeoa dohainik ematen du, auzoko jendearen artean atxikimendu bat sortuz. Azkenean, Gutierrezek (d.g.) *Hortaleza Boxing Crew*-ri egindako elkarrizketa batean dioenez, boxeoa eskusa bat baino ez da, sarea sortzeko, gazteak kaletik ateratzeko eta diziplina lantzeko, gazteak konstanteagoak izan daitezen eta errutina bat izan dezaten, zakuari ematen dioten kolpe bakoitzeko amorru gutxiago sentitzen baitute.

Woodlawn Boys Club:

Loïc Wacquant soziologo frantziarrak 1988tik 1991ra Chicagoko ghetto beltz batetako boxeo klub batean ikerketa soziologiko bat egin zuen, ghettoaren baitan *Woodlawn Boys Club* boxeo gimnasioak zuen papera aztertuz. Izen bereko auzoa Chicagoko barrutirik marginalenetakoa zen Wacquanten (2006) arabera, non arraza segregazioa eta segregazio ekonomikoa zeuden indarrean, kontuan izanda auzoko biztanleriaren %96a afroamerikarrak zirela 1980an. Urte berean, auzoko familien herena pobreziaren mugaren azpitik bizi zen, langabezia tasa %20koa zen, familien %61ak asistentzia sozialeko programaren batekiko dependentzia ekonomikoa zuen eta 1990an haurren heriotza tasa %3a zen. Auzoan zerbitzu gabezia handia zegoen, izan ere, Wacquanten (2006) esanetan, ez zegoen institutu, zinema, liburutegi eta formazio edo enplegua bilatzeko errekurtsorik.

Auzoko eskolak miseriaren eta delinkuentziaren biktima dira... beraien helburu bakarra auzoko gazteak biltzea da... ..ez da harritzekoa kaleko ekonomia ilegalak auzoko gazteak eskolak baino gehiago erakartzea. ...lapurretak, bortxaketak, hilketak eta mota denetako delituak errutinaren parte dira, horrek beldur zapaltzaile bat sortzen duelarik, eguneroko bizitzako ekintza denak desitxuratuz (Wacquant, 2006, orr. 35).

Testuinguru horretan, boxeoko gimnasioak soziabilitate babestu bat eskaintzen du, kaleko arriskuez babestuz, Wacquantek (2006) *santuario* gisa ere definitzen duelarik. Gimnasioaren helburua hori zen hain zuzen, gazteak ghettotik, kriminaltasunetik, bandetatik, drogatik eta miseriatik urruntzea. Parte hartzaileek kaleko arazoak kanpoan uzten zituzten eta ez zuten aisialdia edo entrenamendua zapuztuko zuten gaiez hitz egiten (Wacquant, 2006). Auzoaren maila sozioekonomikoaren ondorioz, ez zen gimnasioan parte hartzeko ordaindu behar, eta gorputza lantzeaz gain, soziabilitatea eta harremanak lantzeko espazioa ere bazen *Woodland Boys Club*-a, Wacquanten (2006) esanetan. Gainera, Wacquanten (2006) aburuz, boxeo bera guztiz kirol indibiduala da, baina honen ikasketa guztiz kolektiboa da eta ezin da indibidualki ikasi, eta horrek, ikasketa kolektibo horrek, ghettoke boxeolarien arteko harremanak sendotzen zituen.

Adibide hauen inguruan hausnartuz, boxeo herrikoi taldeek kasu desberdinetan marjinazioaren eta bazterketa sozialaren aurka egin dutela ikusten da. Boxeoak berak kirol gisa dituen kolektibitate eta diziplina ezaugarrien eta boxeo herrikoia egiten den espazioetan transmititzen diren balore demokratikoen ondorioz, bazterkeria egoeran dauden pertsonak gizartean integratu, talde bateko parte bihurtu eta kirola egiteko dohaineko aukera ematen dute talde hauek. Auzoaren eta pertsonen autokontzeptuan lan egiten dute, Chicagoko

Woodland auzo marjinalako adibidean bezala, maila txikiago batean Bilboko Otxarkoaga auzokoan *Tendel* elkarteak ere lan berdina egiten duelarik. Gainera, boxeoko herrikoia komunitateari eskaintzen zaion zerbitzu bat baino, komunitatearekin berarekin sortzeko eta partekatzeko proiektu bat da, auzo edo herrietako pertsonen artean sareak sortuz eta herritarrek komunitatean duten parte hartzea areagotuz. Ondorioz, adibide hauei erreparatuz, boxeoko herrikoia Gizarte Hezkuntzarekin estuki lotuta dagoela ikusten da.

2.4. AZTERTU DITUDAN TESTUINGURUAK

Nire Gradu Amaierako lanean zentratuz, boxeoko herrikoia esparruan bi testuinguru ikertu ditut, Bilboko San Inazio auzoko *Sanifight* boxeoko taldea eta Italiako Pisako *Palestra Popolare La Fontinako* boxeoko taldea, hain zuzen.

Sanifight boxeoko taldea:

Talde hau Bilboko San Inazio eta Ibarrekolanda auzoen tartean kokatuta dagoen Errondoko Auzoetxean sortu zen 2017an, auzoko gazte batzuek 17 urte abandonatuta zeramatzan espazio hori okupatu zuten urtean bertan (E)*. Bilboko San Inazio auzoa Deustuko barrutiaren barruan kokatzen da, barrutiak guztira 48.933 biztanle ditu, San Inazio auzoak konkretuki 13.712 biztanle dituelarik, Bilboko Udalaren (2015) arabera. Boxeoko talde hau beraz, Errondoko Auzoetxearen parte den talde aktibo gisa ulertu behar da, eta hau sortzearen helburuetako bat auzoarentzat boxeoko talde bat sortzea izan zen (E).

Taldearen sorrerari dagokionez, Errondoko Auzoetxea okupatu eta handik hilabetera hasi ziren lehenengo pertsonak biltzen, izan ere, boxeoa ikasteko gogoia lehendik zegoen, eta espazio hori izateak entrenatzeko gaitasuna eman zuen. Hasieran, talde txiki bat hasi zen bere kabuz entrenatzen, gero entrenatzaile rola hartu zuen pertsona bat animatu zelarik. Hala ere, azken lau urteetan taldeak bilakaera handia izan du, pertsonen perfila eta entrenatzaileak aldatu direlarik (E). Horregatik, azken urte honetan taldeak forma serioago bat hartu du, orain bi entrenatzaile daude, astean lau entrenamendu antolatzen dira, bi goizean eta bi arratsaldean eta taldean aktiboki 12 pertsona inguru daude, nahiz eta entrenamenduetara pertsona gehiago edo pertsona desberdinak ere etorri (E).

Finantziazioaren aldetik, autogestionatua da. Material asko jendeak utzitakoa da, eta materiala erosteko dirua behar denean Auzoetxeko barra irekitzen dute, taberna gisa pintxoak salduz, horrela, autofinantziatorako dirua lortuz (E).

*GrAL hau gauzatzeko egindako elkarrizketetatik bildutako informazioa.

Palestra Popolare La Fontinako boxeo taldea:

Boxeo talde hau Italian Toskana eskualdeko Pisa hirian dago kokatuta. *Istituto Italiano di Statisticaren* (2019, in Tuttitalia, d.g.) arabera, Pisa 185,07km²-ko hiria da, 90.036 biztanle dituelarik, eta izen berdineko probintziaren hiriburua da. Boxeo talde hau Pisako kanpoaldeko La Fontina auzoan 2012an okupatu zuten *Palestra Popolare La Fontina*-n kokatzen da. Hori okupatzeko arrazoia aisialdirako eta kirola egiteko espazio aske baten beharra zegoela izan zen, eta espazio hau urteak abandonatuta zeramatzan gimnasio bat zenez, hori garbitzean ekintza desberdinak antolatzen hasi ziren, hala nola, tenisa, saskibaloia, futbola... (E). Hortik hainbat urtetara, Pisako udaletxearen eta probintziaren aldetik ofizialtasuna lortu dute, espazioa ofizialki eman dietelarik (E). Azkenean, 2019ko irailean, boxeoko entrenatzaile bat animatu zenean, boxeo taldea sortu zen, dagoeneko *Muay Thai* eta *kick boxing* taldeak existitzen zirelarik.

Hasieran, entrenamenduak astean behin baino ez zituzten egiten, baina demanda handia zegoenez, bi egunetan egiten hasi ziren, eta gutxi gora behera 20 bat pertsona egongo dira taldean, nahiz eta denak ez joan inoiz aldi berean (E). Nahiz eta taldea nahiko berria izan, parte hartzaileen perfila ere aldatu egin da denbora gutxi horretan, izan ere, hasieran ia parte hartzaile denak mugimendu sozialen baten militanteak ziren, baina gero, sare sozialen ondorioz, politizatu gabeko jendea ere hurbiltzen hasi zen. Denetariko jendeak hartzen du parte, bai nerabeek eta baita helduagoak diren pertsonak ere (E).

Boxeo taldea eta palestrako beste ikasturteak finantzatzeko hilabeteko 10 euroko kuota boluntarioa ordaintzen du ahal eta nahi duen bazkideak eta horretaz gain bazkarien bidez eta palestrako tabernako barra irekiz ere lortzen dute dirua (E). Gainera, boxeoko material gehiena norbanakoek donatutakoa da, beraz finantziazioaren aldetik autogestionatuak dira.

3. METODOLOGIA

3.1. HELBURUAK

Marko teorikoan agertzen diren boxeo herrikoia kasuak ikusiz, Gradu Amaierako Lan honen helburuak Bilboko San Inazio auzoko *Sanifight* boxeo taldean eta Pisako *Palestra Popolare La Fontinako* boxeo taldean zentratzen dira, bi helburu nagusiak hurrengoak direlarik:

1. *Sanifight* eta *Palestra Popolare La Fontinako* boxeo herrikoi taldeek komunitatean duten papera aztertzea.
2. *Sanifight* eta *Palestra Popolare La Fontinako* boxeo herrikoi taldeek parte hartzaileengan sortzen dituzten onurak ikertzea.

3.2. LAGINA

Helburu horiek betetzeko aukeratu dudan lagina 14 pertsonakoa da:

- 7 pertsona: Pisako *Palestra Popolare La Fontinako* boxeo taldeko parte hartzaileak.
- 7 pertsona: Bilboko San Inazio auzoko *Sanifight* boxeo taldeko parte hartzaileak.

Kontuan izanda boxeo herrikoia Italian sortu izan dela laginaren erdia hor egitea interesgarria iruditu zait, eta aldi berean, Euskal Herrian ere horrelako talde bat aztertzea garrantzitsua iruditzen zait.

3.3. TRESNAK

Ikerketa hau egiteko metodologia kualitatiboa da, izan ere, Arriagaren (2013, in Balcázar *et al.*, 2013) esanetan, pertsonen edo giza taldeen esperientziak ezin dira numerikoki neurtu, eta horregatik, kasu horietarako metodologia kualitatiboa egokia da, errealitate soziala eta kulturala bizi eta eraikitzen duten subjektuen ikuspuntutik aztertzen baitu. Horri lotuta, ikerketa kualitatibo honetarako erabili dudan tresna nagusia elkarrizketa izan da. Tresna gisa elkarrizketa hautatzearen arrazoia hau zuzenean egiten dela da, elkarrizketatu eta elkarrizketatzailearen artean, eta gainera, ahozkoa da, horrek erantzun sakonago bat izateko aukera ematen duelarik Balcázar *et al.*-ren (2013) esanetan. Hala ere, 14 parte hartzailetatik 11 elkarrizketatu ditut presentzialki, beste 3 pertsonak nahiago baitzuten galderak bidali eta erantzunak zuzenean beraiek idaztea, beraz, horiek horrela egin ditut elkarrizketatuen nahiak errespetatuz.

Latas-en (2010) esanetan, ikerketa baten etika bermatzeko bertan parte hartuko duten pertsonak informatu eta hauei baimena eskatu behar zaie, baimen informatuaren bidez. Ikerketa honetan elkarrizketak egin ditudanez, elkarrizketatu denei baimen informatua helarazi diet, elkarrizketak grabatzeko edo transkribatzeko baimena eskatuz. Baimena eskatzeaz gain, dokumentu horretan ikerketaren nondik norakoak zein diren, konfidentziasuna eta pribatasuna bermatzen direla azaldu dut, elkarrizketatuak berarengandik lortutako informazioak zein helburu duen jakin dezan eta ikerketaren inguruan informazioa izan dezan.

Elkarrizketaren eraikuntza:

Elkarrizketaren eraikuntza egiteko, López eta Deslauriers-en (2011) esanetan, autore askok ikerketaren hasieran gaiaren inguruko literaturaren bilaketa bat egitea gomendatzen dute, ikerkuntza subjektua zentratzen laguntzen duelarik bilaketa honek. Horren ondoren, hipotesiak garatuko dira, eta hori eta gero baino ez da hasiko landa lana. Horregatik, marko teorikoa egin ondoren, elkarrizketak sortzeko aurretik proposatutako helburu bakoitzeko hipotesiak sortu ditut, eta ondoren hipotesi horiei erantzuteko galderak. Hurrengoa da egin dudana galderen eraikuntza:

	Galderak:
Elkarrizketatuaren aurkezpena eta honen ibilbidea ulertzeko galderak.	<ul style="list-style-type: none"> • Aurkezpen txiki bat (nongoa zara, non bizi zara, zenbat urte dituzu, ikasle edo langilea...). • Noiz sartu zinen taldera? Zergatik? • Hemen entrenatu baino lehenago beste nonbaiten egin duzu boxeo edo hemen ikasi duzu hasieratik?
Taldearen funtzionamendua eta bilakaera ulertzeko galderak.	<ul style="list-style-type: none"> • Noiz sortu zen taldea? Zeren ondorioz? • Taldearen bilakaera (entrenatzaileak nortzuk izan diren, metodologia aldatu den, parte hartzaileen perfila aldatu den...) • Taldearen funtzionamendua: Nolakoa da entrenamendu normal bat? Talde berdina dago beti edo batzuetan pertsona desberdinak etortzen dira? Non egiten da boxeo, hau da, zein espaziotan? Nola lortzen da hau finantzatzeko dirua?
1. Helburutik sortutako hipotesiak:	
Boxeo herrikoi taldeek komunitatean dagoen behar bati erantzuten diote.	<ul style="list-style-type: none"> • Nola definituko zenuke boxeo herrikoia? • Zer da hemen entrenatsetik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien? • Gimnasio pribatu edo publiko batean entrenatzen egon zara noizbait? Zer desberdintasun aurkituko zenituzke boxeo herrikoiarekin? • Beste kirolak egiten duzu? Onurak sentitzen dituzu kirola egiterakoan? Beste leku batean kirola egiten baduzu, zergatik egiten duzu kirola hemen? Onura berezirik ematen dizu kirola hemen egiteak?
Boxeo herrikoi taldeak komunitateko parte aktibo dira.	<ul style="list-style-type: none"> • Taldea komunitateko parte aktibo dela uste duzu? Taldeak komunitateko eragile aktibo izateko zer ekintza egin izan ditu edo egiten ditu (tailerrak, ekintza irekiak...)?

	<ul style="list-style-type: none"> • Zein ekintza egin izan ditu taldeak (talde barrura begira baina baita auzoari begira ere)?
Taldekideen arteko harreman onak eta talde kohesioa sortzen dira boxeo herrikoi taldeetan.	<ul style="list-style-type: none"> • Nolako harremana duzu beste taldekideekin? Zergatik dela uste duzu?
Boxeo talde hauek komunitateko agente inklusiboak dira, parte hartzaileak komunitatean integratzen laguntzen dutelarik.	<ul style="list-style-type: none"> • Lagundu dizu boxeo talde honek auzoa hobeto ezagutzeko? Uste duzu talde honen bidez auzo honetan integratuago zaudela? • Hemen entrenatu baino lehenago ezagutzen zenuen espazio hau?
2. Helburutik sortutako hipotesiak:	
Boxeo herrikoiak norbanakoengan onura fisiko eta psikologikoak sortzen ditu, eta pertsonen autoestimua eta autonomia maila igotzen du.	<ul style="list-style-type: none"> • Hemen entrenatzerakoan, onurak sentitzen dituzu zure buruarengan (fisikoak, psikologikoak)? Zeintzuk? Talde honetan pertsonen autonomia lantzen dela uste duzu? • Beste kirolak egiten duzu? Onurak sentitzen dituzu kirola egiterakoan? Beste leku batean kirola egiten baduzu, zergatik egiten duzu kirola hemen? Onura berezirik ematen dizu kirola hemen egiteak?
Pertsonak taldeko parte aktibo bihurtzen dira.	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko parte aktibo sentitzen zara?
Talde edo kolektibo batekiko pertenezia sentimendua sortzen dute talde hauek.	<ul style="list-style-type: none"> • Nolako harremana duzu beste taldekideekin? Zergatik dela uste duzu? • Taldeko parte aktibo sentitzen zara?
Boxeo herrikoiak gimnasio normaletan egiten den boxeoak eskaintzen ez dituen onurak ematen dizkie parte hartzaileei.	<ul style="list-style-type: none"> • Nola definituko zenuke boxeo herrikoiak? • Zer da hemen entrenatsetik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien? • Gimnasio pribatu edo publiko batean entrenatzen egon zara noizbait? Zer desberdintasun aurkituko zenituzke boxeo herrikoiarekin? • Beste kirolak egiten duzu? Onurak sentitzen dituzu kirola egiterakoan? Beste leku batean kirola egiten baduzu, zergatik egiten duzu kirola hemen? Onura berezirik ematen dizu kirola hemen egiteak?

Galdera batzuek hipotesi bati baino gehiago erantzuten diote, horregatik, errepikatu egiten dira. Horretaz gain, kontuan izanda lagina Italian eta Euskal Herrian egingo dela, elkarrizketa hiru hizkuntzetara itzuli dut, euskarara, gaztelaniara eta italierara, hain zuzen.

Marko teorikoan agertzen diren testuinguruak osatzeko elkarrizketak:

Beste alde batetatik, marko teorikoan beharrezkoa nuen informazioa biltzeko ere bi elkarrizketa desberdinez baliatu naiz, *Tendel Elkarteari* eta *Rukeli Herri Gimnasioari* egindako elkarrizketez, hain zuzen. Bi elkarrizketa hauen helburua marko teorikorako informazioa lortzea izan da, boxeo herrikoiaren esperientzia bat nolakoa den ezagutzeko alde batetatik, eta boxeoak Gizarte Hezkuntzarekin duen lotura zein den ikusteko, bestetik.

Berrikusketa bibliografikoa:

Horretaz gain, lan hau egiteko interneten egin ditudan bilaketak berrikusketa bibliografikoaren bidez antolatu ditut, datu baseak eta aurkitutako testuak bilatzeko hitz gakoak idatziz:

Datu basea	Hitz Gakoa	Iragazkia	Aukeratutako dokumentua
Google scholar	Comunidad	Comunidad definiciones	El concepto de comunidad desde el punto de vista socio-histórico-cultural y lingüístico
Google scholar	Movimientos sociales	Qué son los movimientos sociales	¿Qué son los movimientos sociales?
Google scholar	Identidad colectiva	Construcción	La construcción de la identidad colectiva en Alberto Melucci
Google scholar	Identidad colectiva	Social	Imaginario social, comunicación e identidad colectiva.
Google scholar	Boxeo autogestionado	Definición	Entre la identidad y la política: afinidades, antagonismos y prácticas deportivas en los gimnasios populares autogestionados
Academia	Palestra popolare		Palestre Popolari-tra spazio, incorporazione e resistenza
Academia	Boxe popolare		'Boxing Is Our Business': The Embodiment of a Leftist Identity in Boxe

			Popolare
Google	Quarticciolo	Palestra popolare	La palestra del Quarticciolo ha vinto
Google	Quarticciolo	Palestra popolare	Quarticciolo, ora la palestra popolare ha un accordo con Ater: "Riconosciuto il valore per il quartiere"
Google	Pisa Italia	Popolazione	Comuni in provincia di Pisa per popolazione
Google	Hortaleza Boxing Crew		Hortaleza Boxing Crew
Google	Hortaleza Boxing Crew	Educación social	Hortaleza Boxing Crew, en la calle
Google Scholar	Investigación cualitativa		Investigación cualitativa
Google Scholar	Entrevista cualitativa mediante hipótesis	Trabajo social	La entrevista cualitativa como técnica para la investigación en Trabajo Social
Google	Rukeli	Gimnasio popular proyecto de barrio	Gimnasio Popular Rukeli: el viaje que va desde un experimento de barrio hasta un espacio imprescindible
Google	Informacion censal Bilbao	San ignacio	Información censal barrios
Google Scholar	Investigación inclusiva	Educación social	Ética para una investigación inclusiva

Interneten bilaketak egiteaz gain, hiru liburu fisiko erabili ditut lan hau gauzatzeko: Julio Rubioren *Decimocuarto asalto*, Loïc Wacquanten *Entre las cuerdas* eta Giuni Ligabueren *Il pugilato per tutti e per tutte: storia, filosofia e istruzioni pratiche per la boxe nelle palestre popolari*.

4. LANAREN GARAPENA

Lan honetan erabilitako metodologia kualitatiboa eta elkarrizketaren eraikuntza azaldu ondoren, lana nola garatu dudana azalduko dut hurrengo lerroetan:

4.1. EGOERA HAUTATZEA, TALDEAK ETA EZAUGARRIAK

Elkarrizketaren diseinua egin ondoren, elkarrizketak egiten hasi naiz. Lehenengo elkarrizketatuko nituen pertsonekin kontaktuan jarri naiz. Horretarako, talde bakoitzeko (*Sanifight* eta *Palestra Popolare La Fontinako* boxeoko taldea) pertsona batekin jarri naiz

harremanetan, nire lanaren nondik norakoak azaldu dizkiot eta pertsona honek taldera transmititu du informazioa, elkarrizketatuak boluntarioak izan direlarik. Behin elkarrizketatzeko boluntarioak izanda, boluntario bakoitzari ikerketaren helburuak zein diren azaldu dizkiot, informatuta egon daitezten. Horretaz gain, hauen nahia errespetatzea garrantzitsua iruditzen zait, erosoago sentitu daitezten eta horregatik elkarrizketako galderak elkarrizketa egin baino lehenago edo momentuan irakurri nahi zituzten galdetu diot boluntario bakoitzari, askok lehenagotik nahi izaten baitituzte urduritasunari aurre egiteko eta beste batzuek ordea momentuan irakurri nahi dituzte.

Horretaz gain, 14 elkarrizketatutik 11 presentzialki egin ditut, eta 3 kasutan (Pisako 2 eta San Inazioko 1) galderak bidali eta beraiek idatzita bidali dizkidate, horrela nahiago baitzuten. Presentzialki egin ditudan elkarrizketak elkarrizketatuak proposatutako lekuan egin ditut. Honen bidez, elkarrizketatuak eroso sentitzen diren leku batean egitea bilatu dut. Elkarrizketak grabatu egin ditut, betiere parte hartzaileen baimenarekin eta aurretik elkarrizketatuei baimen informatua helaraziz, eta hauek egin ondoren elkarrizketak transkribatzeari ekin diot, horren bidez datuak aztertzeke helburuarekin.

4.2. BILDUTAKO DATUAK AZTERTZEA

Elkarrizketak egin ondoren, hauen analisisa egiten hasi naiz, eta erantzunek gai desberdinen inguruan hitz egiten dutenez, kategoria desberdinak sortu ditut, erantzun bakoitza bere kategorian kokatuz. Erantzunetatik sortutako kategoriak egin ondoren, aurretik formulatutako hipotesiekin lotu ditut azken hauek. Hala ere, 10. kategoria ezin izan dut ezerekin lotu, aurretik ez baitut horren inguruko hipotesirik formulatu, eta 5. eta 6. kategoriekin hipotesi berdinarekin dute lotura. Hurrengoak dira sortutako 10 kategoriak eta hipotesiekin egin dudana lotura:

Kategoriak	Lotura hipotesiekin
1. Komunitatearen beharra	Boxeo herrikoi taldeek komunitatean dagoen behar bati erantzuten diote.
2. Komunitateko parte aktibo	Boxeo herrikoi taldeak komunitateko parte aktibo dira.
3. Talde kohesioa, kolektibitatea eta harremanak	Taldeekideen arteko harreman onak eta talde kohesioa sortzen dira boxeo herrikoi taldeetan.
4. Inklusioa komunitatean	Boxeo talde hauek komunitateko tresna integratzaileak dira, parte hartzaileak komunitatean integratzen laguntzen

	dutelarik.
5. Onura psikologiko eta fisikoak 6. Pertsonen autonomia	Boxeo herrikoiak norbanakoengan onura fisiko eta psikologikok sortzen ditu, eta pertsonen autoestima eta autonomia maila igotzen du.
7. Pertsonen aktibazioa eta parte hartzea	Pertsonak taldeko parte aktibo bihurtzen dira.
8. Pertenentzia sentimendua	Talde edo kolektibo batekiko pertenenentzia sentimendua sortzen dute talde hauek.
9. Gimnasioekin konparaketa	Boxeo herrikoiak gimnasio normaletan egiten den boxeoa eskaintzen ez dituen onurak ematen dizkie parte hartzaileei.
10. Balioak	

5. EMAITZAK

Hurrengo lerroetan ikerketa kualitatibo honen bidez ateratako emaitzak azaleratuko ditut. Emaitzak argi ikusteko kategoriaka azalduko ditut, kategoria bakoitzeko emaitzak aztertuz.

1. Komunitatearen beharra:

Kategoria honetan boxeo herrikoi talde hauek komunitatean dauden hainbat beharrei erantzuten dietela azalerazi da. Hasteko, *Palestra Popolare La Fontinako* boxeo taldean zentratuz, Italian ez da hemengo kiroldegi publikoa bezalakorik existitzen eta horregatik boxeoa aritzeko beti ordaindu behar da. San Inazio auzoan ere, ez dago ordaindu gabe boxeo egiteko gunerik. Beraz, kirola dohainik egiteko beharra asetzen dute talde hauek.

Horretaz gain, hainbat elkarrizketatuk boxeo gimnasio batetik at ikasi nahi zutela esaten dute, gimnasioetako giroak ez baitzituen erakartzen eta, ondorioz, talde hauek behar horri ere erantzuten diote.

Gainera, talde hauek gizarte mugimenduetatik sortutako taldeak diren heinean, kirola dohainik eta gimnasioetatik kanpo egitearen beharrei erantzuteaz gain, beste behar batzuei ere erantzun diete. *Palestra Popolare La Fontinako* boxeo taldeari dagokionez, pandemian zehar arazo ekonomikoak dituzten familientzako hirian antolatu zen janari bilketan parte hartu zuten, behar horri ere aurre eginez.

2. Komunitateko parte aktibo:

Elkarrizketen erantzunei erreparatuz, taldea komunitateko parte aktibo dela galdetzerakoan Pisako taldekideek boxeo taldeari baino palestrari berari egin diote

erreferentzia, boxeo taldea talde independente bat izan beharrean palestraren barruan kokatuz. Argi dago *Palestra Popolare La Fontina* komunitateko eragile aktiboa dela, horretarako hainbat ekintza ireki egiten baititu, denak komunitateari zuzenduta: espazioa bera komunitateari irekitzea eta honentzat konpontzea, festibalak, liburuen aurkezpenak, bazkariak txapelketak antolatzea... Horretaz gain, boxeo taldean zentratuz, boxeo klase irekiak antolatu dituzte, normalean entrenatzera ez doan jendeak ere entrenamenduak ezagutzeko, eta beste talde batzuekin harremana dute, egun baten zehar Firenzeko boxeo herrikoi taldearekin jardunaldi irekiak egin zituztelarik.

Nahiz eta elkarrizketatu gehienek palestrari erreferentzia egin galdera honetan, boxeo taldea palestraren parte gisa ulertzen da, eta horregatik boxeo taldeko norbanakoek zein taldeak bere osotasunean palestra komunitateko eragile aktibo izateko lana egiten dute, boxeo taldea ere aktibo bihurtuz.

San Inazio auzoko boxeo herrikoi taldeari dagokionez, galdera honetan ez da erantzun amankomun bat egon. Elkarrizketatu batzuk taldea Errondoko Auzoetxearen barruan kokatzen dute, eta Auzoetxea komunitateko eragile aktibo den heinean boxeo taldea ere badela defendatzen dute. Beste batzuek ordea, boxeo taldea benetan komunitateko parte aktibo izateko ekintza gehiago egin ahalko lituzkeela defendatzen dute, komunitatera gehiago ireki behar dela argudiatuz.

3. Talde kohesioa, kolektibitatea eta harremanak:

Kategoria honi dagokionez, elkarrizketatu denek garrantzia eman diete boxeo herrikoi talde hauetan sortzen diren harremanei, harremanak onak eta osasuntsuak direla esanez. Kolektibitate sentimendua dagoela diote, eta lehiaren aurretik elkartasuna dago beti, beraien arteko harremanak zaindu egiten direlarik.

4. Inklusioa komunitatean:

Emaitzen arabera, boxeo herrikoi talde hauetako parte hartzaileak komunitatean integratuago sentitzen dira talde honi esker, talde hauek komunitateko elementu inklusiboa direlarik. Horrela sentitzearen arrazoi nagusia boxeo taldeen bidez jende gehiago ezagutzen dutela da, bai auzokoa eta baita hiriko beste auzo batzuetakoa.

Horretaz gain, elkarrizketatuen arabera, talde hauek boxeoa dohainik egitea eskaintzen duten momentutik pertsonen inklusioa errazten dute, pertsona denentzat baliabidetzen baitute kirola.

Talde barrura begira ere, erabiltzen den metodologia inklusiboa dela diote elkarrizketatuek, pertsona denen gaitasunak kontuan hartzen dituelarik.

5. Onura psikologiko eta fisikoak:

Onura psikologiko eta fisikoei begiratu, elkarrizketatu denek nabarmendu dituzte talde hauetan onura handiak dituztela bai arlo psikologiko eta arlo fisikoan. Onura fisikoak kirolari esker dira, baina onura psikologikoen arrazoi bakarra ez da boxeo, talde beraren funtzionamendua ere bada. Psikologikoki osasun mentala zaintzeko talde hau garrantzitsua dela diote elkarrizketatuek.

Boxeo herrikoiak talde hauetako parte hartzaileei sortzen dizkien onura nagusienak hurrengoak dira: gorputzarekiko kontrola lortzea, autoestimua hobetzea, animo aldetik ere hobeto sentitzea eta estresaren kontra asko laguntzea. Horretaz gain, parte hartzaileek taldearen funtzionamendua eta dagoen giroa positiboki balioztatzen dute, honek onura handiak sortzen dizkielarik.

6. Pertsonen autonomia:

Pertsonen autonomiari dagokionez, elkarrizketatu denek boxeo herrikoi talde hauetan autonomia lantzen dela diote, parte hartzaileen autonomia areagotu egiten delarik. Autonomia talde hauen funtzionamendu motaren ondorioz lantzen da, hau da, modu autogestionatu batean funtzionatzen dutelako, hain zuzen. Ekintzak denon artean egiten dituzte, ez entrenatzerakoan bakarrik, baita espazioa garbitzerakoan edo zaintzerakoan ere.

7. Pertsonen aktibazioa eta parte hartzea:

Elkarrizketatu denak taldeko parte aktibo sentitzen direla eta taldean parte hartze handia dagoela diote. Boxeo herrikoi talde hauek, talde komertzialak ez diren eta mugimendu sozial batetatik sortutako taldeak diren heinean, pertsona boluntarioek osatzen dute hauen gestioa, taldeak bizirik jarraitzeko pertsonen parte hartzea eta aktibazioa beharrezkoa du, eta horregatik lantzen dira bi ezaugarri hauek. Gainera, beraien iritzia esateko libre sentitzen dira parte hartzaileak hori ere parte hartzeko beste arrazoi bat da.

Horretaz gain, *Palestra Popolare La Fontinari* dagokionez, boxeo taldeaz gain, palestrak berak ere taldetik kanpo dagoen pertsonen aktibazioa bultzatzen duela argudiatzen dute elkarrizketatuek, hasieran beraien kabuz futbol zelaira jolastera joaten ziren gazteak gero palestrako dinamiketan parte hartzen amaitzen dutelarik.

8. Pertenentzia sentimendua:

Taldekiek boxeo taldearekiko pertenezia sentimendua dute eta sentimendu hau modu positiboan baloratzen dute, taldearen parte sentitzeak onura ematen dielarik. Boxeoa kirol indibiduala den arren taldean egiten dute, sentimendu hori bultzatuz, eta horretaz gain boxeo herrikoi talde hauetako giro onak eta harremanek parte hartzaileak eroso sentiarazten dituzte. Taldeak komunitatean lan egitean beraien burua baliagarria dela baloratzen dute, beraietako bakarrik ez den proiektu batean baitaude, eta horrek proiektuarekiko pertenezia sentimendua sortzen du.

9. Gimnasioekin konparaketa:

Elkarrizketatu denek boxeo herrikoi taldeen eta gimnasio pribatuen artean desberdintasunak nabarmendu dituzte. Desberdintasunak hurrengoak dira: boxeo herrikoi taldeak parte hartzaileagoak dira biltzar baten bidez antolatzen direlako, filosofia eta balio desberdinak daude, gimnasio pribatuetan matxismoa bezalako jarrera diskriminatzaileak egoten dira, gimnasioetan lehia eta indarkeriaren goraiamena egiten da boxeo herrikoietan elkartasunak garrantzi handiagoa duen bitartean eta gimnasioetako eta boxeo herrikoi taldeetako parte hartzaileen perfila desberdina da. Gainera, hainbat elkarrizketatuk gimnasio pribatu batean boxeoa ikasteko ez liratekeela hain seguru sentituko erantzun dute, bertan ematen den lehiaren filosofiaren ondorioz mina hartzeko beldurra izango bailukete.

Gimnasioetan seriotasun handiagoa dago entrenamenduei dagokienez, bertan txapelketetan parte hartzen duten pertsonak baitaude, boxeo herrikoi talde hauetan ordea, txapelketetan parte hartzen duten pertsonak beste gimnasio batean ere entrenatzen dutelako da. Horretaz gain, hainbat elkarrizketatuk gimnasio pribatu batean inoiz egon ez direla erantzun dute, baina dena den gimnasioekiko duten irudia ez da ona, kirola saltzen duela argudiatuz eta bertako giroa kritikatzan dutelarik.

10. Balioak:

Erantzunek diotenez balioek eta ideologiak garrantzi handia dute boxeo herrikoi talde hauetan. Talde hauek konnotazio politiko eta sozial handia dute, kirola eskubide gisa ikusten dute, ordaindu behar ez den zerbait, eta horretarako autogestioaren bidez antolatzen dira, autogestioa antolatzeko funtsezko modua dutelarik. Beraien arteko harremanak berdintasunean, errespetuan eta horizontaltasunean oinarritzen dituzte, bai taldekideen artean eta baita entrenatzailearekiko harremana ere, eta diskriminazioen kontra daude, antifaxismoa, antisexismoa eta antiarrazakeria beraien idealen artean daudelarik, nahiz eta elkarrizketatu batek oraindik lantzeko hainbat gauza dauden argudiatu.

6. ONDORIOAK

Atal honetan lan honen bidez ateratako ondorioak azaleratuko dira, konkretuki lau ondorio nagusi:

Lan honen lehenengo helburuari dagokionez, emaitzak begiratuta esan daiteke helburu horren hipotesiak orokorrean bete egin direla. Emaitzetan argi geratu da boxeo herrikoi talde hauek komunitatearen behar desberdinei erantzuten dietela, hala nola, kirola dohainik egiteko beharrari, boxeo gimnasio pribatu bat ez den leku batean egiteko beharrari eta Pisako *Palestra Popolare La Fontinako* boxeo taldearen kasuan kirolaz aparte, beste behar sozial batzuei ere erantzuten zaie, adibidez, emaitzetan azaltzen den janari bilketaren bidez. Beste alde batetik, argi geratu da Pisako kasuan boxeo taldea komunitateko eragile aktiboa dela, palestrak eta boxeo taldeak berak komunitatearentzat hainbat ekintza egiten baitituzte. San Inazioko taldeari dagokionez, arlo honetan erantzun amankomunik ez denez egon emaitza ez da argia, baina elkarrizketatu askok komunitatean taldea benetan aktibo izateko gabeziak ikusten dituzte, beraz, *Sanifight*-i dagokionez hipotesi hau ez da bete. Horretaz gain, bi taldeetan argi geratu da talde kohesioa nabarmena dela eta taldekideen artean harreman sanoak sortzen direla. Lehenengo helburuaren hipotesiekin amaitzeko, azken hipotesia ere bete egiten da, boxeo talde hauek komunitateko elementu inklusiboak direla frogatu baita, talde hauen bidez taldekideak komunitatean integratuago sentitzen baitira, parte hartzaileek beraien harreman sareak areagotzen baitituzte eta taldean sartzeko ordaindu behar ez izatea jada elementu inklusiboa baita.

Bigarren helburuan zentratuz, boxeo herrikoi taldeek norbanakoengan hurrengo eragina dutela ondorioztatu da emaitzen bidez: pertsonak aktibatzea eta hauen parte hartzea bultzatzen dute, onura fisiko zein psikologikoak ematen dituzte (adibidez, autoestimuan onurak), taldearekiko pertenezia sentimendua sortzen dute eta norbanakoen autonomia areagotzen dute. Marko teorikoan aipatutako boxeo herrikoiaren onurekin konparazio bat eginez, onura horietan agertzen ez diren bi ezaugarri azaleratu dira lan honen bidez: alde batetik, nahiz eta marko teorikoan kolektibitateari buruz hitz egin, ez da pertenezia sentimenduari buruz ezer esaten, eta beste alde batetik, pertsonen autonomia areagotzen dela ere ez da aipatzen. Azken ezaugarri hau, pertsonen autonomia areagotzea, hain zuzen, boxeo talde herrikoiek duten izaera autogestionatuaren ondorioz dela ondorioztatu daiteke, izan ere, taldearen funtzionamendu mota horrek taldekide denak parte hartzera bultzatzen ditu, lanak banatuz eta ardurak hartuz, eta horrela autonomia landuz. Horretaz gain, boxeo

herrikoi taldeek gimnasio pribatuek eman ezin dituzten onurak dituztela ere azalerazi da emaitzetan. Onura horien zergatia zein den ondorioztatzea erraza da: gimnasio pribatuek eta boxeo herrikoi taldeek dituzten helburuak desberdinak dira. Gimnasio pribatuen helburua boxeoaren teknikak irakastea da, pertsonak txapelketetan parte hartzeko formatuz. Boxeo herrikoi taldeen helburuak zein diren zehaztea zaila da, talde bakoitzak bere helburu espezifikoak baititu, baina orokorrean, komunitatearen eta norbanakoen onuran zentratzen dira talde hauen helburuak, aisialdirako eta kirol sana egiteko aukera bat eskainiz auzo edo hiriarri boxeoaren bidez. Horregatik, normala da boxeo herrikoi talde hauek gimnasio pribatuek eman ezin ditzaketen onurak ematea, helburuak desberdinak baitira.

Hirugarren ondorioan zentratuz, *Sanifight* eta *Palestra Popolare La Fontinako* boxeo taldeak konparatuz, desberdintasunak ikusten dira. Pisako boxeo taldeak harreman handiagoa du komunitatearekin eta beste talde sozial zein politikoekin saretuago dago, komunitateko eragile aktibo izateko ekintza gehiago egiten dituelarik. Honen arrazoiak boxeo herrikoi taldeak historikoki Italian dutela sorrera eta boxeo herrikoiaren kultura Italian oso hedatuta dagoela izan daitezke (Camoletto *et al.*, 2015). Euskal Herrian ordea, azken urteetako fenomenoak dira boxeo herrikoi taldeak. Horregatik, desberdintasun honen arrazoia kulturalki Italian boxeo herrikoiaren inguruko tradizioa handiagoa dela ondorioztatu daiteke.

Beste alde batetik, boxeo herrikoi talde hauek Gizarte Hezkuntzarekin duten lotura azpimarratu behar da. Emaitzen bidez talde hauek komunitatearen behar batzuei erantzuten dietela eta komunitateko tresna inklusiboak direla bermatu da. Horretaz gain, pertsonen parte hartzea eta aktibazioa bultzatzen duela ere ikusi da, parte hartzaileei hainbat onura emanez. Marko teorikoan esaten den bezala pertenezia sentimendua garrantzitsua da komunitatearen garapenerako (Causse, 2009), eta emaitzetan talde hauek pertenezia sentimendua sortzen dutela frogatu da. Gainera, talde hauetan ematen diren baloreak diskriminazioaren kontrakoak dira, beraien harremanak horizontaltasunean eta berdintasunean oinarritzen dituztelarik. Horregatik, Gizarte Hezkuntzaren ikuspuntutik, talde hauek komunitatearekin eta komunitatearentzat lan egiten dutela esan daiteke. Erakunde instituzional bat ez izateak ez du esan nahi Gizarte Hezkuntzarekin loturarik ez dutenik, izan ere, sistema kapitalistak kirola komertzializatu egiten du, erosi behar den zerbitzu batean bihurtuz, eta talde hauek, boxeo deskomertzializatu eta boxeo edozein klase sozialetako pertsonentzat ahalbidetzen dute, gimnasio normal bat ordaintzeko baliabiderik ez duten pertsonen boxeo egiteko aukera emanez. Arrazoi guzti horientatik boxeo herrikoi talde hauek komunitatearentzako eta bertako parte hartzaileentzako agente garrantzitsuak direla ondorioztatu daiteke.

Lau ondorio horiei erreparatuz, boxeo herrikoi taldeek komunitatean egiten duten lana garrantzitsua dela esan daiteke, ahal duten heinean behar konkretu batzuei erantzuten baitiete, komunitatean sartzeko tresna inklusiboak baitira, parte hartzea bultzatzen baitute eta kirola denon eskubide bihurtzen baitute.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aguilar, M. J. (2013, azaroaren 30a). Participación Comunitaria: ¿qué es?.
<https://mariajoseaguilaridanez.wordpress.com/2013/11/30/participacion-comunitaria-que-es/>
- Argenti, G. (2020, urtarrilaren 26a). La palestra del Quarticciolo ha vinto. *La Repubblica*.
https://roma.repubblica.it/cronaca/2020/01/26/news/la_palestra_del_quarticciolo_ha_vinto-246767658/
- Balcázar, P., González-Arratia, N. I., Gurrola, G. M., eta Moysén, A. (2013). *Investigación cualitativa*. Universidad Autónoma del Estado de México.[Archivo PDF]
<http://disde.minedu.gob.pe/handle/20.500.12799/4641>
- Benvenega, L. (2020). Entre la identidad y la política: afinidades, antagonismos y prácticas deportivas a en los gimnasios populares autogestionados. *Perifèria, revista de recerca i formació en antropologia*, 25(1), 81-97.
- Bilboko Udala (2015). *Información censal: Barrios*.
https://www.bilbao.eus/observatoriobarrios/censo_b.html
- Cabrera, D.H. (2004). Imaginario social, comunicación e identidad colectiva.
https://www.researchgate.net/profile/Daniel_Cabrera4/publication/242731193_Imaginario_social_comunicacion_e_identidad_colectiva/links/00463535d56c9cf25e000000.pdf
- Camoletto, R., Farina, I. , Lanati, A. eta Peterlongo, G. (2015). *Palestre Popolari-tra spazio, incorporazione e resistenza* [asignatura Stili di vita e spazi urbani, Università di Torino].
https://www.academia.edu/9837152/Palestre_Popolari_tra_spazio_incorporazione_e_resistenza
- Causse, M. (2009). El concepto de comunidad desde el punto de vista socio-historico-cultural y lingüístico. *Ciencia en su PC*, (3). 12-21.
<https://www.redalyc.org/pdf/1813/181321553002.pdf>
- Chihu, A. eta López, A. (2007). La construcción de la identidad colectiva en Alberto Melucci. *Polis*, 3(1), 125-159. http://www.scielo.org.mx/scielo.php?pid=S1870-23332007000100006&script=sci_arttext
- Eito, A. eta Gómez, J. D. (2013). El concepto de comunidad y el trabajo social. *Espacios Transnacionales (en línea)*, 1(1), 10-16. <http://www.espaciostransnacionales.org/wp-content/uploads/2014/10/1-Conceptotrabajosocial1.pdf>
- García, C. (2019). *Gimnasio Popular Rukeli: el viaje que va desde un experimento de barrio hasta un espacio imprescindible*. Borroka garaia.
<https://borrokagaraia.wordpress.com/2019/01/25/gimnasio-popular-rukeli-el-viaje-que-va-desde-un-experimento-de-barrio-hasta-un-espacio-imprescindible/>

- Gutierrez, B. (d.g.). *Hortaleza Boxing Crew*. En la calle, revista sobre situaciones en riesgo social. 2021eko maiatzaren 9an ikusia. <https://www.revistaenlacalle.org/hortaleza-boxing-crew/>
- Hortaleza Boxing Crew (d.g.). *Quienes somos*. Hortaleza Boxing Crew. 2021eko maiatzaren 7an ikusia. <http://www.hortalezaboxingcrew.org/index.php/quienes-somos>
- Ibarra, P. (2000). ¿Qué son los movimientos sociales?. *Anuario de los Movimientos Sociales, Betiko Fundazioa*, 9-26.
- Latas, Á. P. (2010). Ética para una investigación inclusiva. *Revista educación inclusiva*, 3(1), 165-174.
- Li B (2016, abuztuaren 5a). "Nuestros sueños no se derriban" - Espacio Asociativo La Uva, Hortaleza [bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=YB3ReMWwTFw>
- Ligabue, G. (2016). *Il pugilato per tutti e tutte: storia, filosofia e istruzioni pratiche per la boxe nelle palestre popolari*. Hellnation libri.
- López, R. E., eta Deslauriers, J. P. (2011). La entrevista cualitativa como técnica para la investigación en Trabajo Social. *Margen: revista de trabajo social y CCSS*, 61, 1-19.
- Pedrini, L. (2018). 'Boxing Is Our Business': The Embodiment of a Leftist Identity in Boxe Popolare. *Societis* 8(3), 85.
- Rubio, J. (2012). *Decimocuarto asalto*. Editorial Klinamen.
- Sina, Y. (2020, otsailaren 7a). Quarticciolo, ora la palestra popolare ha un accordo con Ater: "Riconosciuto il valore per il quartiere". *Roma Today*. <https://www.romatoday.it/zone/centocelle/quarticciolo/palestra-popolare-quarticciolo.html>
- Tuttitalia (d.g.). *Comuni in provincia di Pisa per popolazione*. Tuttitalia. 2021eko maiatzaren 9an ikusia. <https://www.tuttitalia.it/toscana/provincia-di-pisa/42-comuni/popolazione/>
- Ucha, F. (2010). *Definición de participación*. Definición ABC. <https://www.definicionabc.com/politica/participacion.php>
- Wacquant, L. J. (2006). *Entre las cuerdas: cuadernos de un aprendiz de boxeador*. Editorial Siglo XXI.